

noaua

**Odolaren Mintzoa,
goiko postuetan**

**'Gau-beranduan'
eta 'Bypass' filma,
asteburuon Sutegin**

LOMCE legeaz

**Ikurrina
legeztatu zen garaia**



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak**

www.lhusurbil.com



**Maiatzak 11 eta 18
ATE IREKIAK**

943 36 46 00



**ORDUTEGI
BERRIA!!!
LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA!!!**

Marije
Arropa denda

Etxebeste 3 - 943 36 11 06 - USURBIL



**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**

Zure
au  era



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**

**AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 14ra**



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

www.ieslasarte-usurbilbhi.hezkuntza.net

Albiste iruditan

Lege berriarekin ez daude konforme

Udarrregi ikastolako langileen ordezkariak igorri digu argazki hau. Eta argazkiarekin, honako oharra: "ikastolan aurreko ostiralean egin genuen elkarteratzearen berri eman nahi dizuet". LAB sindikatuak egin zuen deialdiarekin bat egin ez, LOMCE ez, Murrizketarik ez, gure hezkuntza ereduaren ekimenarekin bat egin zuten irudian diren irakasle eta langileek. "Ikastola guztiei egin zitzaien deialdia eta gure er proposamen honen bat egin genuen". 12.30ean ikastola sarreran elkartu ziren eta Bordatxo aurreko errotondara jaitsi ziren. Han 15 minutuz egon ziren pankartarekin, LOMCE legeari aurkakotasuna adieraziz.



"LOMCE ez, Murrizketarik ez, gure hezkuntza eredu" aldarrikatu zuten.

Laburrean

Leonera ekainean, Gure Pakea elkartekoekin

Maiatzaren 7ra arte irekita dago, Gure Pakea elkarteak ekainean Leonera antolatu duen bidaian izen emateko epea. Artzabalgo bulegoan apuntatu edota informazio gehiago jaso daiteke. Bidaia-aren prezioa, 375 euro pertsona bakoitzeko (131 euro banakako gehigarria). Bidaia, ekainaren 2tik 7ra izango da; eta hiri ezberdinak bisitatzeko aukera izango da sei egunez.

"Kolorez kolore" diaporama saioa

Iñaki Agirresarobe herritarrek argazki bilduma berri bat proiektatuko du maiatzaren 8an, 19:30etan Sutegiko auditorioan. "Kolorez kolore" izena jarri dio diaporama saioari, eta bertan, "zeruak eskaintzen dituen aukera paregabeak dira oinarri: kolore nabarra, gorria, grisa, urdinxka...". Egun desberdinetan ateratuko argazkiekin osatu du ekitaldirako proiektzioa.

Odol ematea, astelehenean anbulatorioan

Usurbilgo Odol Emateen Elkarteak odola emateko hitzordua antolatu du datorren astelehenerako, maiatzaren 6rako, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Herritar guztiei egiten zaien deialdia da hau: "18 eta 65 urte arteko adinean direnak, eta osasun arazorik ez bada medio, etortzera animatu daitezela".

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaúa.com /// www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak




Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaúa.com.
Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaúa.com: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idokia Torregarai

Tontorrean

A itortu dezadan: mendizale utopikoa naiz ni. Ez Himalaya edo Aconcaguara joateko ametsetan bizi naizelako, ez. Mendia gustatu bai baina joaten ez naizelako baizik. Izugarri gustatzen zait tontorrean sentitzen den askatasun sentipen hori; gauza gutxi daude hobeagoak (bale, batzuk bai). Zer esan esfortzu handiaren ondotik etxetik eramandako ogitartekoaren zapore zoragarriaz (momentu horretan Arzaken egongo bazi-

na bezala gozatzen duzu). Eta nola ez, etxeratzean sartzen zaizun neke goxo hori. Gauza haundiya da, bai horixe!

Ados. Ba pentsatzen jarri naiz eta badira 5 bat urte (!!!) mendirik egiten ez dudarik. Ama izan nintzenetik, hain juxtu ere. Nere burua zuritzeko esan nezake amatasunak ez didala tarterik utzi maldan gora jartzeko (eta ez nuke gezurrik esango), baina izan nadin zintzoa: nere biriketako ahalmena beti izan da txantxan-

gorri batena. Aldapan gora hasi eta Tapiaren trikitiaren auspoak baino soinu gehiago ateratzen dut. Ez naiz batere elegantea mendian; bestela ere ziurrenik ez, baina mendian... Izerditan ere segituan hasten naiz eta noski, gero hortxe ibiltzen naiz, txamarra kendu, txamarra jantzi. Orain hotz, gero bero. Alegiya, termos-tatua ere ez daukadala oso ondo. Ibiltzeko postura ere ez dut zuzena izaten; ahaleginaren ahaleginaz gero eta gehiago okertzen

naiz, Cuasimodoren antza hartuz. Hurrengo egunean, agujetez gain, bizkarreko min ederra izaten dut... Eta gaitzerdi hankan baba edo urraturen bat egiten ez badut! Amak esaten duen moduan, hankak "mantekillazkuak" dauzkat.

Ikusten dezue, ez naiz mendizale-fina. Ez dut euskaldun-mendizale-jatorraren paradigma betezen. Mendizale utopikoa naiz. Onartu dezadan behingoz. Tontorrean ikusiko gara.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | **Idokia Torregarai** | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

Alemaniko ezkerri buruzko hitzaldia

Europa astintzen ari den krisi ekonomia bideratzeko Europako Batasuna hartzen ari den neurriak Alemaniako gobernuak diktatutakoak izan dira orain arte. Europar Angela Merkelek agintzen duela esan izan da. Neurri horiek oso gogorak izan dira, ongizate-estatuen higadura ekartzen ari dira eta pertsona ahulenen kalterako gertatzen ari dira. Gizartean uste da krisi ekonomikoari buruz eta horretatik irtezeko konponbidei buruz Alemanian iritzi bakarra dagoela eta horixe dela Merkelek ordezkatzeko duena. Errealitatea ez da horrelakoa eta Alemanian bertan Merkelen eta bere gober-

nuaren ikuspegia bere egiten ez duten indar politikoak eta sozialak ere badira. Horietako bat da Die Linke (Ezkerra) alderdia.

Datorren maiatzaren 9an, Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean, 19:00etan, Die Linke alderdiko kide Florian Wilde izango dugu hizlari. Hitzaldiaren izenburua hauxe da: "Erresistentzia eraikitzen ekaitzaren begian: Alemaniako ezkerria eta Europako krisia". Izenburu ezin egokiagoa da, kontuan hartzen badugu maiatzaren 9a Europako eguna dela. Hitzaldian Alemaniako ezkerriak Merkelen ideiei eskaintzen dien alternatibak jorratuko ditu besteak beste.

Florian Wilde Die Linke alderdiko kidea izateaz gain, Rosa Luxemburg fundazioko kide ere bada. Florianek eskarmentua du langile-mugimenduan eta berriki azterketa bat publikatu du Europako greba orokor politikoei buruzkoa.

Beraz, Aralarretik, usurbildar guztiak animatzen ditugu hitzaldi honetara, krisiaren afera honetan, Alemanian sortzen ari den alternatibaren inguruan gehiago jakin, eta Alemaniako mugimendu hau, agian, gure herrirako baliagarria izan daitekeen ikusiaz.

Usurbilgo Aralar

Udako Txokoak Zubietan

Usurbilgo udalaren laguntzarekin, Zubietan Udako Txokoak antolatzen hasi dira. Txokoak 3 urtetik (2010 urtean jaiotakoak) 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Uztailan eta abuztuan Eskola Txikitik elkartuko dira eta orduetgia 9:30tik 13:30ra izango da.

Izen emate orriak ikastolan eta Barazar Tabernan eskuratu daitezke eta Udaletxeko buzoian bota behar dira (Alamandegin). Izen emateko azken eguna maiatzaren 20a izango da. Edozein zalantza izanez gero deitu: Izaskun: 618 700 479 Josune: 636 719 301.

Kuota haurren kopuruaren arabera zehaztuko da.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 6.

“Udal honen jarduera garbia eta gardena da”

Usurbilek “zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia”, Udaletik prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez. Hala ondorioztatzen du, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Udalaren duela bi urteko jarduera ikusatu eta horren inguruan kaleratu duen txostenak. Udala era zorrotzean aztertu dutela berri eman dute.

Txosten hau osorik, eranskin eta Udalak aurkezturiko alegazio eta guzti, usurbil.net atarian ikusgai daude. Txostena bera, apirilaren 22ko Ogasun Batzordean aurkeztu zuen gobernu taldeak. Bertan, azterketa hau “nota onarekin” pasa zutela adierazi zuen Mertxe Aizpurua alkateak, “txosten honek frogatzen baitu Usurbilen ez dela eman justifikaziorik gabeko gasturik, ez da izan desbideratze ekonomikorik, ez da izan lizitazio prezioa gainditu duen obrarik, ez dago kontratazio susmagarririk; beraz, balorazioa baikorra da. Hitz gutxitan: Udal honen jarduera garbia eta gardena da”.

Udalaren prentsa oharrak jasotzen duenez,



Lege arautegia betetzen duela dio Udalak.

aipatu epaitegiak legezkotasuna betetzen ez dituen bi gai baino ez ditu aurkitu, “lege urraketa oso txikiak”. Epaitegiko letraduaren arabera, 2011. urtetik haratago joan den azterlanean. “Kontuan izan behar da, fiskalizazioa 2011. urtearen gain egin dela baina hariari jarraituz, urtez urte atzera joan dela eta urte desberdinetan luzatu diren operazioak ere aztertu dituela”, berri ematen du prentsa oharrak. Ezohikoa omen da hain lege urratze txikiak izatea, Epaitegiaren arabera, “ohikoena lege urraketa gehiago egotea da”.

Zauritu bat, asteleheneko istripuan

Auto istripua gertatu zen astelehen goizean Usurbilen, N-634 errepidean. Goizeko 9:00ak pasatxoan, oraindik argitu gabe dauden arrazoiengatik, furgoneta bat irauli zen errepidean. Gidaria suhiltzaileek atera behar izan zuten, furgoneta barruan harrapatuta geratu baitzen.

Afari herrikoia gaztetxean

Borondatearen truke, afari herrikoia maiatzaren 9an gaztetxean, 20:30ean hasita. “Afariko osagaiak herriko azokako zein herriko produktuak izan daitezen saiaturik gara, plateretan ez da egongo haragirik ezta arrainik ere, barazkiduna %100”. Afalosterrako musika eta sorpresak iragarri dituzte.

1971koen bazkaria

Txakolindegi batera doaz autobusez. Maiatzaren 11n, goizeko 12:00etan Txapeldun tabernan elkartzeko dira. Izena emateko ere Txapeldun tabernan, maiatzaren 4a arte.

Ika-Mika

Eskerrik asko

Apirilaren 27an larunbatean, ospatu genuen Usurbilgo I. Dantza Eguna. Urduritasun asko, zeruari ateri eusteko erreguka, hotz honekin inor etorriko ote da? Baina usurbildarrek erakutsi ziguten eguraldia ez dela aitzakia edozein ekintzari harrera beroa emateko. Goizetik hasita gau arte, une gogogarritz betetako eguna izan zen.

Eta orain hausnarketa egiterakoan, denoi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Pentsatzen jarri, eta zerrrenda amaiezina da. Eskerrak prestatetan lagundu diguzuen guztioi: Buztinzuloko Tximiri, makillai aholkuak eman dizkigun N-Ileapaindegiko Inesi, Txitxori, Txurdi eta Aitor Egiletari. Eskerrak baita Lurdako Begoñari, Paurmako Preseni, Martxeli eta Aitzagako Minusi, erakusketa osatzeko materiala uzteagatik. Mila esker Joseba eta Urkori, kainaberengatik. Eskerrak baita udalari, egun hau prestatzeko emandako baliabide guztiengatik, baita Kul-

tura Saileko Maite, Lourdes eta Igotzi ere, edozein galdera erantzuteko prest egon direlako.

Eskerrak, goizean euri zaparrada tartean kalejiran animatu zineten guztioi. Eskerrak asko Garbi Alai taldeko ei, baita gaur egungo Dantza Taldearen sortzaileei ere. Zuek hasitako bideari jarraituz berriz ere dantza urte luzez Usurbilen presente izango delako. Eskerrak asko urteetan zehar Dantza Taldearekin lotuta izan zaretzen guztioi ere, dantzari, jostunei, musikariari. Eskerrak asko Trikitixa Taldeari eta Usurbilgo Txistulari Taldeari, euriarekin tristetatutako eguna musikarekin alaitzeagatik. Eskerrak asko frontoian gurekin bildu zineten guztioi, ordezkarlanak egin zenutenoi, eta gurekin batera dantzatu zenuten denoi ere mila esker.

Eskerrak baita, Warda Mallal eta bere dantzari, Tximeleta taldeko Kidira, Lara eta beraien ikasleei, eskerrak asko Gaztetxeko dantzari hasi berriei, egun honetarako bereziki prestatu zuten

koreografiagatik. Eskerrak asko muxikoen taldeari, taldean dantza egitea zein polita den erakusteagatik. Eskerrak asko Dantza Taldeko haurrei eta begiraleei, Maialen, Nekane, Irati, Ene-ritz, Olatz, Zuriñe, Aitor eta Garaziri, baita Mikeli ere, eskatutako dantza guztiak denbora gutxian hain ondo ikasi eta dantzatzegatik.

Peru eta Markeli ere eskerrak, audiobisualen gaian eman diguzuen laguntzagatik. Eskerrak asko familia eta lagunei, hainbeste hilabetetan Dantza Egunaren inguruan emandako lata aguantatzeagatik, baina baita emandako babesagatik eta urduritasunak lasaitzen laguntzeko egingandako ahaleginagatik ere.

Eskerrak Ixabeli eta Zumarte abesbatzako guztiei, erakutsitako pazientziagatik eta emandako animoengatik, ekitaldia hobetzeko eman dizkiguzuen aholkuegatik.

Eta nola ez, eskerrak dantzari guztiei: Olatz eta Maier, taldea sortzeko

bultzada emateagatik, baita Leire, Iñaki, Amaia Y, Estitxu, Maddi, Amaia O, Marta, Naiara eta Itziarri, eskaini diguzuen ilusioagatik. Eskerrak gazteei, Mattin, Oskar, eta Mikeli, Leire, Nerea, Eukene eta Aneri, Garazi, Zuriñe, Ene-ritz eta Aitorri, azken orduko proposamenari baiezkotako emateagatik.

Ikusten duzuen bezala, Usurbilgo I. Dantza Eguna aurrera ateratzeko pertsona askoren lana egon da, eta ziur norbaiten aipamena egitea ahaztu zaigula. Bihotzez, mila esker guztioi!

Tarte hau aprobetxatuko dugu hurrengo urterako ere ideiak baditugula aipatzeko. Larunbatekoa gustatu bazitzaizuen eta parte hartzera animatzen bazarete, maiatzaren 6an elkartzeko gara 19.30tan Agerialdeko gimnasioan dantza berriak ikasi eta ondo pasatzen jarraitzeko.

Hurrengo urtera arte, jarraitu dantzant!!

Usurbilgo Dantza Taldea

Odolaren Mintzoa, goiko postuetan

Gaztea irrati kateak antolaturiko Make-ta Lehiaketan, Entzuleen Saria jasotzeko norgehiagokan parte hartu berri dute. Euren abestia, "Gaua", 300 lanetatik hogen onenen artean sailkatu da. Sarean duzue entzungai, myspace.com/odolarenmintzoa atarian. Hori, eta urteotan sortzen joan diren beste hainbat abesti. Usurbilgo Gaztetxean kontzertua eskaini berri dute. Bilbo edo Lezo aldera doaz orain, Luken Arkarazo, Joanes eta Beñat Txueka eta Jokin Irastorza, Odolaren Mintzoa taldeko kideak.

"Lehiaketa hauek taldea ezagutzera eman eta esperientzia moduan oso ondo daude"



Odolaren Mintzoa, zuzeneko batean.

Gertutik jarraituko zenuten, aurtengo Maketa Lehiaketa?

Jokin Irastorza. Jarraipena egin bai. Hasieratik ikusi genuen, sailkapeneko lehenengo taldeek abantaila handia hartu zutela. Postua mantendu dugu, baina bozka kopuruaren alde nabaria zen. Skasti taldekoek irabazi dute. Hasieratik nahiko argi zegoen, eurak irabaziko zutela. Esperantza txiki bat bagenuen, epaimahaiak aukeratu ote zigun.

300 lan aurkeztu ziren. Entzuleen Saria jasotzeko 20 onenak hautatu zituzten. Horien artean zuena?

Beñat Txueka. Ezustekoa izan da guretzat. Duela hila-bete batzuk Banden Lehian ere parte hartu genuen. Hura ere beste ezusteko bat izan zen guretzat. Eta oraingo honetan ere, lehen hogen taldeen artean sailkatzea ez genuen espero. Sartu gara eta

ahal duguna egin dugu.

Lehiaketan, "Gaua" izeneko kantarekin parte hartu duzue. Zer dela eta?

B.T. Lehiaketako epaimahai-kideek hiru abesti bidaltzea eskatzen zuten. Gero epaimahaiak hiru abesti horietatik bat aukeratu zuen, "Gaua". Kanta hori jarri zuten jendeak bozkatzeko. Esan beharra dago baita ere, zer abesti bidali zalantzak izan genituela. "Gaua" bidaltzea erabaki genuen, besteak beste, gurekin grabatzen aritzen den Kakik askotan esan ohi baitigu oso abesti ona dela, eta beste abestiekiko nabarmendu egiten dela. Guk ere gutxieneko konfiantza badugu abesti horretan. Jada urteak daramatzagu kanta hori jotzen eta lantzen.

Txapelketek zer ekarpen egiten diete musika taldeei?

B.T. Oso garrantzitsua, talde askorentzat erakusleho bat da. Lehiaketa hauek taldea ezagutzera eman eta esperientzia moduan oso ondo daude. Taldeari beste aire bat

ematen diote.

J.I. Azken finean, gure kantengan sinisten dugu, gustukoak ditugu. Eta konturatzen gara guretzat bakarrik ez direla politikak, besteren bati ere gustatzen zaizkiola. Horra ailegatzea, hori pentsatzea bultzarazten digu halako lehiaketa batek. Animua ematen du.

Zazpi bat urte Odolaren Mintzoan. Nolako izan da taldeak eduki duen eboluzioa?

B.T. Hasierak beti izaten dira zailak. Ez duzu abesterik, gauzak presaka, segituan egin nahi dituzu. Lehiaketen kontuarekin indarra hartu dugu.

J.I. Beti joan gara aurrera. Kanta asko ditugu. Kontzertuetako abestien zerrendak gure kantekin osatzen genituen hasieratik. Bilakaera handiagoa izan da azken urteotan. Hasieran kanta bakoitza estilo desberdinetakoa zen. Orain, estilo finkatuagoa dugu, rock ingurukoa, baina ukitu desberdinekin. Jendeari gustatzen ari zaio egia esan. Azken kontzertuari buruz, nahiko iritzi onak entzun genituen.

2008an grabatu zenuten lehen maketa. Besterik bai urteotan?

B.T. Hortik aparte beste bat egin genuen, urtebetera. Hamar bat kanta grabatu genituen baina ez genuen kaleratu. Gero aparte, azken urte honetan ere abesti berriak grabatzen aritu gara. Ez ditugu kaleratu, Interneten eta bai.

Zestoan, Usurbilen... Kontzertuz kontzertu zabilzate?

J.I. Boladak ditugu. Zestoan izan genuen. Maiatzaren 4an Bilbon joko dugu, Lezon maiatzaren 18an.

B.T. Astebururo izan dugu kontzerturen bat joan den hilean.

Haranen zaudeten, beste musika taldeekin batera elkarbizitzan. Zer mugimendu dabil bertan?

B.T. Zazpi bat talde finko egongo gara. Bakoitzak bere entsegu ordua jarria du. Saioa bukatuta, batzuk joaten direnean, besteak datoz. Bakoitza bere gelan dago entseatzen. Giro ona dago.

Igande honetan, txipiroi ukituko Tipi-Tapa

Txipiroiak pelaio era, txipiroi beteak, txipiroiak urdaiazpikoarekin eta tenpura... Hitz hauek irakurrita gosetu bazarete, txipiroiak osagai nagusi izango dituen mokadu hauek eta gehiago dastatzeko aukera ere egongo da, igande honetan, maiatzaren 5ean ospatuko den VI. Tipi-Tapan. Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernak lotuko dituen ibilbide gastronomikoaren edizio berri honetan ere, pintxo eta edaria (urteko ardo zuri, gorri edo beltza, txakolina, sagardoa, zurtoa, muztioa edo ura) 2 euroren truke eskuratu ahal izango dira. Edo pintxo bakarrik, 1,5 eurotan.

Giroten joateko, tabernariak Pello arrandegian izan dira. Txipiroiak protagonista



Tabernariak Pello arrandegian, VI. Tipi Tapa iragartzen.

izango dituen datorren Tipi-Tapa iragartzeko, ondoko erretratu atera dute bertako langileekin. Zizka mizkak eskatzen joan ahala, ez ahaztu eskura duzuen Hurbilago Txartealeko zigiluak lortzen joatea.

Bestalde, igande honetan ez da 300 euroko erosketak balerik

zozketatuko, bai ordea, ekainaren 2ko edizioan. Zigiluak eskuratu eta txartela, Hurbilago Elkartearen egitasmo honetan parte hartzen duten bost edaritegiotan egongo den kaxetan utzi dezakezue. Hartara, hilabete barru ospatuko den zozketan parte hartu ahal izango duzue.

Santixabeletako txupinazoa nork piztu, herritarren esku

Aurtengo herriko festei hasiera nork emango dion erabakitzeke dago oraindik. Jai Batzordetik beste modu batean lotu nahi dute, Santixabeletako txupinazoa jaurtitzeko ohorea norena izango den. Horretarako, "Nork merezi du?" izenburupean, festa inauguratuko dituen suziria nork piztuko duen erabakitzeke herritarren proposamenak bildu nahi ditu Jai Batzordeak. Ekarpinak, kultura@usurbil.net helbidera bidali daitezke, edo zuzenean, Potxoenean edo Sutegi udal liburutegira eraman, maiatzaren 24a baino lehen.

Egitarau lehiaketa abian

Txupinazoa nork botako duen bakarrik ez, aurreko urteetan bezala, 2013ko Santixabelen berri emango duen egitarauaren diseinua ere herritarren esku utziko du Jai Batzordeak. Maiatzaren 25era arte aurrez daitezke lehiaketa honetarako lanak. Egitaraua diseinatzeke testua Potxoenean eskura daiteke. Gogoan izan, testu horretan oinarrituta marraztu behar baita egitarauak izango duen itxura. Ohi bezala, lanaren neurria librean izango da. Lanak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar dira, egilearen inongo seinalerik gabe. Egilearen datuak berriz, hau da, izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbidea, aparteko gutunazal itxi batean adieraziko dira. "Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean", diote egitarau lehiaketako oinarriek. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Argibide gehiago: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net

Jai Batzordearen hurrengo bilera, maiatzaren 8an

Jai Batzordeak finkatua du, herriko festa prestatzeko hurrengo bilera hitzordua. Maiatzaren 8rako, asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Usurbil dantzaleku, iragan larunbatean

Omenaldia, jai eta belaunaldi desberdinetako dantzarien biltokian bihurtu zen estreinakoz, larunbatean ospatu zen Usurbilgo Dantzaren Lehen Eguna. Kalejira eta belaunaldi arteko transmisio edo omenaldi ekitaldi batekin hasi zuten eguna hain zuzen, frontoian. Omenduak izan ziren haietako bat baino gehiago. Eta noski, dantzan ospatu zuten hitzordua. Jendetsua izan zen arratsaldean pilotalekuan bertan dantzaren inguruan diharduten herriko hainbat taldeek eskainitako erakustaldi saioa. Harmailek goraino bete ziren. Bitartean, Kiroldegian, Tximeleta soinketa erritmikoko taldeek urteroko topaketak burutu zituzten goiz-arratsez.

"Sorginetxe" saioa, jendetsua

Frontoiko dantza taldeen saioa amaituta, Kantu-Taldekoen txanda heldu zen. Hitzordu berezia ospatu



Atzoko eta gaurko dantzariak bildu ziren omenaldian.

zuten, larunbateko jaialdira egokitutakoa; Dantza-Kantu-Jira. Kantuan eta dantzan aritu ziren kalean. Euren egin zuten, arratsaldeko saioen eta gaueko "Sorginetxe" ikuskizun berriaren estreinaldiaren arteko zubilana. Dantza Taldeko ohiko kideekin batera, ikasturte honetan sortu den 18 urtetik gorako dantzariak protagonista izan zituen gaueko emanaldia, jendetsua eta ederra izan zen.

Dantza Taldekoen erakusketak

zabalik jarraituko du igandera arte, maiatzaren 5era arte, Sutegiko aretoan. Datorren urtean gainera, Dantza Taldekoen historia jasoko duen liburua argitaratu asmo dute eta material bila jarraitzen dute. Beraz, dokumentaziorik, arroparik, irudirik izan eta utzi nahi duenak, jar dadila harremanetan Dantza Taldearekin: 650 422 601. Emaillez: dantzataldea@usurbil.com

Andres Bruño, alkate ohia: “Gu euskaldunak gara, gurea ikurrina da”

Kolore txuri, gorri eta berdedun ikurrinak merezitako omenaldia jasoko du larunbat honetan, 13:00etan udaletxe aurreko plazan. 36 urte pasa dira legeztatu zutenetik eta nolabait, ordutik hona ikurrinak izan duen ibilbidea oroitu da maiatzaren 4 honetan. Herriarren gehiengoak berea bezala sentitzen duen ikur honi, “merezi duen begirunea eta lekua” eskainiko zaio, bandera espainola jartzeko Udalak jaso duen aginduaren aurrean.

Ekitaldian zehar, aurrerantzean herritar oro-ren begi bistan izango den ikurrina zintzilika-tuko dute. Txalapartari, bertsolari eta dantzari-ek ere parte hartuko dute hitzordu honetan. Herritarrek, eragileek, baita gaurko eta atzoko udal ordezkari-ek ere.

Udalaren gonbita jaso eta bertan izango den herritarretako bat, Andres Bruño dugu. Usurbilgo alkate ohia, eta ikurrinaren omenaldia oso modua berezian biziko duen lagunetako bat. Bera alkate zela legeztatu baitzuten ikurrina, 1977ko urtarrilaren 19an, San Sebastian egunaren bezperan. “Han egongo naiz, lehen ere hor ibili gara eta borrokan”, adierazi dio NOAUA!ri, omenaldi aurreko egunotan.

ALKATEEN BERGARAKO TALDEA

1976an alkate izendatu eta gutxira, ordura arte “erakutsi” ezin zen ikurrina legeztatzeke erronka esku artean zuen bera buru zuen orduko Usurbilgo Udalak, Euskal Herriko beste hainbat udal-ek bezala. Hilabete haietan sortu zen, gerora “alkateen Bergarako mugimendua” izenez eza-gutuko zena. Hainbat alkate batu ziren, beste-ren artean, ikurrina legeztatzea eskatzeko. Lehen bilerak Bergaran egitetik datorkio izena aipatu alkateen bilgune hari. Bilerak alkateen artean bakarrik ez, Madril aldera ere joan ziren, espainiar estatutik garai hartan noski, ikurrina legeztatzearen aurkako jarrera argia zen eta. Ikurrinaren aldeko mobilizazio-ek ere ez zen falta izan. Lan eta saiakera askoren ostean, erronka lortu zuten, 1977ko urtarrilaren 18an, Martin Villa



Ikurrina legeztatu zeneko eguna oroitzuz, Gregorio Arbeloak koadro hau margotu zuen.

ZAILTASUNAK BIDEAN

“Martin Villak ikusi zuenean indarra zegoela alkateen taldean, jada ontzat eman zuen. Aurrenetik gogorra zen, baina gero ontzat eman zuen”

Espainiako Gobernuko barne ministroarekin eta Gutierrez Mellado teniente-jeneralarekin alkateek Madrilan egin zuten bileran. “Martin Villak ikusi zuenean indarra zegoela alkateen taldean, jada ontzat eman zuen. Aurrenetik gogorra zen, baina gero ontzat eman zuen”, oroitzen da Andres Bruño. Egun hartan, “zigor gabetu” zuten ikurrina, eta Madrildik alkateak eurak izan ziren telefonoz, albiste pozgarria Euskal Herrira zabaldu zutenak. Hortik aurrera, hurrengo orduetan prestaketa lanik ez zuten falta izan. Dena oso azkar joan zen, 24 orduren buruan, hilaren 19an osoko bilkura deitu zuen Usurbilgo Udalak. Udalbatzak saio horretan ikurrina legeztatzea era-

baki zuen. Eta segituan irten ziren udaletxe-ko balkoira ikurrina harrotasun osoz astintzera. Plazan jendetza bildu zen, guztiak une historiko hura bizitzera gerturatuak.

GAURKO AGINDUAK, ATZOKO BERAK

Usurbilen bezala, ordu berean, beste hainbat herrietan ere antzeko ekitaldiak burutu ziren egun berean, San Sebastian bezperan. Antza, Donostiako Udalarari aurre hartu nahi zioten. Hiriburuko garai hartako alkateak, “San Sebastian egunean jarri nahi zuen ikurrina”, oroitzen du Bruño. Hark izan nahi ikurrina jartzen lehena, baina bandera txuri, berde eta gorria legeztatzeke lanetan ez omen zen askorik saiatu eta, gainerako alkateek telefonoz aurre hartzea erabaki eta ikurrina San Sebastian bezperan, 19:00etan jartzea adostu omen zuten. Hasieran 16 bat udal-ek, gerora gehiago batu ziren.

Egunok igaro ostean, ikurrina kentzeko saiakeraren bat edo beste izan omen zen, Bruñoaren esanetan. Baina horretan geratu zen guztia. Gaur arte.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitaratekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

“Madrildik zerbait egiteko agintzen dutenean, onartu behar, bestela badakizu zer duzun”

Ikurrina legeztatu zutenetik 36 urte igaro dira. 2013an gaude, eta Espainiar Gobernuko Delegazioak hala eskatuta eta epaitegien aginduz, bandera espainiarra jartzera behartu dute Udala. Bai Usurbilen eta Euskal Herriko beste hainbat lekutan. Ia lau hamarkada igaro ostean, inposizioz berriz ere bandera espainola nola jartzten duten bizitza egokitu zaio Andres Bruñori. Urteak pasa diren arren, bandera espainiarra jartzeko agindua iraganeko beste hainbat aginduren tankerakoa dela dio alkate ohiak, baina horren aurrean, “Madrildik zerbait egiteko agintzen dutenean, onartu behar, bestela badakizu zer duzun”.

BALKOJETAN IKURRINAK JARTZEKO DEIA

Larunbatean ikurrinari egingo zaion omenaldian egongo da Bruño, eta bertaratzeko gonbita luzatzen die herritarrei. “Omenaldira joateko denei. Hainbat borroka izan ditugu ikurrinarekin, hainbat gorabehera. Orain, duela 40 urte eta baita lehenago ere. Baina gu eskal-



1977an, ikurrina jarri zen egunean alkatea Andres Bruño zen (zutik, erdiko). Idazkaria, Roke Arriola. Zinegotziak: Felix Aizpurua, Joxe Antonio Altuna, Joxe Aburuza, Jesus Urkiola, Felix Olasagasti, Joxe Manuel Matxain, Julian Pikabea.

dunak gara, gurea ikurrina da, ez bestea”, adierazi dio NOAUAri.

Ikurrinaren aldeko jarrera Udalarena bakarrik

ez, “herri osoarena izan dadin”, larunbateko omenaldiko antolatzaileek etxeko balkoi eta leihoetan ikurrina jartzera deitzen diete herritarrei.

Sarreraren salmenta

bastero KULTURGUNEA

“CHARLIE”
Cia. Danza Fernando Hurtado

MAIATZAK 10, ostirala - 21:30
Andoaingo auditorioan

ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Alduzkia

Info: 943.303.540
www.andoain.org

Tapak eta aurkibideak prest

noaUA

USURBIL

2017

Agur esan diegu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Gau-beranduan eta ilunpeen bihotzean

IKUSKIZUN BERRI BATEK BATU DITU HARKAITZ CANO, JOXAN GOIKOETXEA ETA PETTI



Bi musikari eta idazle bat elkarrekin. 'Gau-beranduan' saioa maiatzaren 4an eskainiko dute lehen aldiz, 22:00etan Sutegiko auditorioan.

Eraldatu egiten dira paisajeak gau-beranduan. Eder zena beldurgarri bihurtzen da eta beldurgarri zena eder. Giza-piztiak ere berdin: izango da sosegaren bila erretiratuko denik eta baita ehizakiaren xerka abiatuko denik ere. Egunak utzitako nekeak ez du disimulurako tarterik uzten gau-beranduan. Maitaketa, konspirazioa eta sabotaiaren zainetan daramaten istorioak. Kantu eta poema zaharrak, bertsioak eta emanaldirako espreski ondutakoak. Gau-beranduan eta ilunpeen bihotzean, giro horretan topo egin dute Harkaitz Cano, Joxan Goikoetxea eta Petti. 'Gau-beranduan'. Eta halaxe du izena larunbat honetan Usurbilen abiaraziko duten ikuskizunak. Harkaitz Cano eman dizkigu xehetasun guztiak.

Betidanik harremanatu izan dira poetak eta musikariak gauarekin, eta gauaren mistikarekin. Hortik ere izango du

HARKAITZ CANO

"Entzulegoak ezagutzen dituen kantuak, ezusteko bertsioak eta kantu berriren bat ere izango da"

akaso 'Gau-beranduan' ikuskizunak?

Harkaitz Cano. Topikoa da neurri batean, baina hor dago uste hori, bai... Hiruok mahaiaren bueltan elkartu bezain pronto Joxan Goikoetxearen lehen galdera umoretsua horixe izan zen: "Zer egingo diagu, zerbait gau girokoa, artzain-poema lirikoak, happy happy...?". Ez galdetu zergatik, baina hiruok aurpegira begiratu eta zirt-zart erabaki genuen gau girokoa zegokigula gehiago... Badago parrandaren epika hori, batzuetan faltsua dena, eta badago baita ere lanetik etxera nekatuta iristen denaren oda hori: erreposoa egiteko unea da gaua, atzera begiratu eta datorrenari aurre egiteko ordua. Deskantsua eta insom-

nia, lasaitasuna eta kezka, bi biak dauzka gauak. Hortik doa tonua: gauaren sosegua dago batetik, eta mamuak bestetik.

Musikari bi eta idazle bat elkartu zarete saio honetan. Propio idatzitako testuak eta abestiak entzungo dituzte ikusleek ala zuen aurreko poema eta kantuetan oinarritzen al da saio berri hau?

H. C. Denetik egongo da: propio idatzitako testuak, poema ineditoak eta poema zaharrak ere bai. Esperientziak erakusten dit hutsetik abiatuta baino giro politagoa lortzen dela askotan norbere kantu eta poema kuttunak erreskatatzen direnean. Horrek halako lur irmo bat ematen du, eta horren gainean inprobisatu eta eranstea errazagoa da.

Gaua bera gertatzen da kantuekin: entzulegoak ezagutzen dituen kantuak izango dira zenbait, baina baita kantu berriak eta ezusteko bertsioak ere, okasiorako propio egokitutak.

"PETTIREKIN ARITZEA LUXUA DA NIRETZAT"

Petti eta Joxan Goikoetxearekin arituko zara. Nola sortu zen elkarrekin lan egiteko aukera hau? Lehen aldia izango da, akaso.

H. C. Lehen aldia izango da, eta Joxeanjel Arbelaitzen bitartekaritza da kulpante. Eskerrak bera bezalakoei, geure lotsak ezabatu eta zail eman lezakeena erraz bihurtzen dutelako.

Joxan Goikoetxea lehendik ezagutzen nuen pertsonalki, baina Pettiren kantaeraren mirrele izan arren, ez genuen elkar ezagutzen. Luxua da niretzat halako piztia eszenikoekin aritzea.

'Gau-beranduan'

- **Maiatzak 4 larunbata,** 22:00etan Sutegin.
- **Sarrera:** 10 euro. Aldez aurretik Lizardín, 8 euro.
- **Antolatzailea:** Jexux Artze Kultur Elkarte.

'Bypass', tragediatik eta komediatik duen pelikula

Pelikulako une batean protagonistetako batek besteari esaten dio: "Egunen batean barre egingo dugu hau guztia gogoratzean". Filmaren aurkezpenean esaldi horri heldu zion Patxo Telleria zuzendaria: "Esaten da komedia dela tragedia gehi denbora. Guk pertsonaien sufrimenduarekin barre egiten dugu, baina ez ditugu erridikulizatzen. Pertsonaien duintasuna eta gizatasuna gordetzen saiatzen gara. Ez dugu nahi komediaren mesedetan pertsonaia tontoak sortzerik".

Xabik (Gorka Otxoa), Nereak (Barbara Goenaga) eta Mariak (Sara Cozar) osaturiko



Maiatzaren 3an ostirala, gaueko 22:00etan Sutegin.

maitasun triangeluaren inguruan ardatzuriko istorio honek irribarreak ez ezik, algarak ere atera dizkio publikoari. Itziar Atienzak, Mikel Losadak eta Aitor Mazok osatzen dute aktore zerrenda.

Patxo Telleriak eta Aitor Mazok zuzendu zuten pelikula hau. "La máquina de pintar nubes" zuzendu zuten orain lau urte, eta iaz euskara hutsean egindako lan honekin arrakasta handia erdietsi zuten.

'Hil arte bizi' antzezlanarekin amaituko da Jexux Artzeren omenezko kultur egitaraua

Txalo antzerki taldeak 'Hil arte bizi' komedia eskainiko du maiatzaren 11n larunbata, Sutegin. "Maitasunaren eta adiskidetasunaren inguruan egindako hausnarketa", hala zioten antzezlan honen sortzaileek.

Telebistan eta beste antzerki obra batzuetan aritutako hiru aktorek jokatzeko dituzte rol nagusiak. Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar dira aktore horiek, eta Nacho, Angel eta Mariaren pertsonaia antzeztuko dituzte.

Begoña Bilbaok zuzentzen duen lanak, betiko hiru lagun arteko adiskidetasuna du ardatz. Hiruren arteko harremana kolokan jarriko du, ordea, gertaera batek. "Heriotzaz hitz egiten duen komedia, eta adiskidetasunaz jardungo den tragedia" bezala definitu dute Txalo antzerki taldekoek.

'Hil arte bizi' antzezlana maiatzaren 11n ikusteko aukera egon-



Maiatzaren 11n larunbata, gaueko 22:00etan Sutegin.

go da, Sutegiko auditorioan, 22:00etan hasita.

Sarrerak 10 eurotan jarri dituz-

te salgai, baina aldeztu aurretik erosita, 8 eurotan eskura daitezke Lizardi dendan.

Bina sarrera eskuratu nahi?

Jexux Artze Kultur Elkartekoek, adeitasun osoz, sarrera batzuk utzi dituzte gure esku, NOAUA!ko bazkideen artean zozketatu ditzagun. Beraz, zozketan parte hartzeko baldintza bakarra hori izango da: NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide izatea. Horietakoa bazara, bidali e-posta bat erredakzioa@noaua.com helbidera, sarrerak zein ekitaldirako zehazki nahi dituzun adieraziz. Zozketa maiatzaren 3an ostirala egingo dugu, arratsaldeko 15:00etan, eta irabazleen berri noaua.com orrialdean eman go dugu. Bazkide bazara eta bi sarrera eskuratu nahi badituzu, aurrera: bidali emaila, nora joan nahi duzun zehaztuz, eta zorte on!

Jexux Artzeren omenez

Maiatzak 3, ostirala

■ 22:00 "Bypass" filma Sutegin. Sarrerak: aurrez salgai, 3 eurotan Lizardin.

Maiatzak 4, larunbata

■ 22:00 Petti, Harkaitz Cano eta Joxan Goikoetxearen "Gau beranduan" saioa Sutegin. 8 euro aldeztu aurretik Lizardin, 10 euro egunean bertan.

Maiatzak 11, larunbata

■ 22:00 "Hil arte bizi" antzezlana Sutegin. 8 euro aldeztu aurretik Lizardin, 10 euro egunean bertan.

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

Laguntzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

euskalerrairratia **fm91.4**

ZuenBaimenarekin

#ZuenBaimenarekin

Nafarroako Gobernuaren
debekuaren aurrean
emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerrairratia.com

00 34 948 17 01 51

Zer da LOMCE?

Maiz atera gara kalera azken hilabeteetan Madrileko exekutibotik ezarri nahi dizkiguten erreforma eta lege ezberdinen aurrean protesta egitera. Lana, osasuna, kultura, etxebizitza... ugari izan dira PP-ren gobernuak urratu dituen ezinbesteko behar eta eskubideak. Gaurkoan, hezkuntza eredia zuzenki kolpatu eta ondorioz gazteongan eragin handia izango duen erreforma bat azalduko dizuegu. Askotan entzun dugu hedabideetan, eta are gehiagotan oihukatu ditugu leloak honen aurka. Baina ba al dakigu benetan zer den LOMCE? Eta zein aldaketak suposatuko dituen?

"Ley Organica para la Mejora de la Calidad educativa" deiturikoa, 2012ko irailan Espainiako Parlamentuan PPren gehiengo osoarekin, aurrera eraman zen Hezkuntza erreformaren aurreproiektu legea du. Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko eremuak hartzen ditu bere baitan.

Asko dira erreformak dakartzan aldaketak, guztiak baturik, gaur arte lan asko eginik eratu den hezkuntza eredia kinka larrian ipintzen dutelarik.

Alde batetik **aldaketa curricularra** du. Honen arabera ikasgaiak eurentzat duten garrantziaren arabera sailkatu nahi dituzte:

1-Tronkalak deitzen diren oinarrizko ikasgaiak, besteak beste, matematika eta gaztelania edota atzerriko hizkuntzak.

2-Espezifikoa. Atzerriko bigarren hezkuntza, soinketa edota **erlijioa** bezalako ikasgaiak ditugu bertan.

3-Espezializazioak. Hirugarren maila honetan kokatzen dute **euskara**. Besteak beste erlijioa eta atzerriko bigarren hezkuntzaren atzetik kokatzen dute.

Ebaluazioa. Etapa bakoitza amaitzen duten heinean **rebalida** edo azterketa "nazionala" burutu beharko dute ikasleek. Hau da, DBH eta Batxilergo notaren %70 etapako nota izango da eta azterketa "nazionalak" %30a balio-



LOMCE legearen aurka mobilizazio ugari egin dituzte euskal ikasleek.

LEGE ORGANIKOA

"Asko dira erreformak dakartzan aldaketak. Hezkuntza eredia kinka larrian ipintzen dutelarik"

ko du. Honen aurreran, hezkuntza edukiak **zentralizatzeko saiakera** irmoa dela esatea ez da inongo astakeria. Gure kasuan (hizkuntza koofiziala dugunez) edukiaren %65 Madrilera baxiak izango baitira.

Bereizketa bultzatzen duen legea ere bada LOMCE. Alde batetik sexuaren arabera bananduriko ikastetxei bultzada emateko neurriak hartuko ditu. Bestetik DBH4. maila ezabatu nahi da, batxilergo edota lanbide heziketara doazen ikasleak bereizten dituen maila berri bat sortuz. Noski, oraindik etorkizunean zer egin nahi duten argi ez duten ikasleak aukera bat edo beste hautatzera behartuak izango dira.

Tamalez, **eskola porrotari erantzun desgokia** ematen dio, "talentu" hitzaren erabilpen arriskuarekin. Honen ondorioz, nota onak lortzen dituzten gazteen eta "beste" arteko zatiketa lortzen da. Hain emaitza onak lortu ezin dituzten ikasleek dituzten beste talentu,

gaitasun eta interesak gutxietsi eta albo batera utzi. Klasismo eta arrazakeria zantzu garbiak ikus ditzakegu.

Hezkuntza sistema enpresen zerbitzura ipintzen da. Lan merkatuan erabilgarri izan daitezkeen edukiak bultzatuz, eskulan isil eta obediztaile baten bila. Norberaren formazioa, etika eta iritzi kritiko bat izatearen garrantzia eurentzat ez da erabilgarria. Ondorioz, edukiaren inguruko (eta bestelako) eztabaidentzako eremua erabat ezabatzen dute. Hau guztia gutxi balitz, erreformak espainiar Konstituzioaren balioen eta konstituzio beraren derrigorrezko ikaskuntza proposatzen du.

Legea bera **antidemokratikoa** da. Hura eratzeko orduan hezkuntza komunitateari atak itxi zaizkio. Irakaskuntza munduko aditu eta jakitun ezberdinekin iritzirik trukatzea ez zaie erabilgarria iruditu. Ahaztu egin dute dirudenez, estatu honetan nazio eta herri ezberdinak bizi garena. Ez da ulertzen bestela, errealitate linguistikoa ezberdinak dituen estatu batean hezkuntza lege bera ezarri nahi izatea.

Hau al da nahi dugun hezkuntza eredia?

Itaya gazte taldea

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.com

CAF-Elhuyar sarien banaketa, "Ilargipean"

Berrikuntza ugarirekin ospatu zen joan den apirilaren 25ean, CAF-Elhuyar Sari Banaketa. Nobedadeen artean, sariketa burutzeko lekuazegoen; Usurbilgo herria hautatu baitzuten antolatzaileek. Bigarrenik, Elhuyarrek bere irudi berria jendartean ezagutzera emateko ere baliatu zuen hitzordua. Sari banaketari dagokionez, aurtengo edizioan, kategoria berri bat txertatu dute.

Ikuskizun batekin hasi zen sari banaketa. Mainer Yabar dantzariak eman zion hasiera ekitaldiari. Frontoiko sabaitik zintzilik dantzan aritu zen, Elhuyar Fundazioaren logotipo berria izango denarekin, ilargi batekin. Modu honetan, antolatzaileen esanetan, irudi berri hau, "ekitaldiaren erdigunean" kokatu nahi zuten. Aipatu moduan ilargi bat, "hazten ari den ilargi bat, babesten gaituena, baina inguruan eragitera behartzen gaituena" Elhuyarrekoen esanetan.

"Eragin elkarrekintza!"

Aurtengo ediziorako hautatu duten aldarria ere ildo horretatik dator, "Eragin elkarrekintza!" izenarekin. Joan den asteko ekitaldian aldarri hau islatu eta sari banaketa ospatzeko hautatu zuten lekuarekin lotu nahi izan zuten. "Geurre hitzen jabe egin, eta lehenbiziko aldiz, ekitaldia Usurbilgo herrira eramatea erabaki dugu, Usurbilgo herritarrekin eta gure inguruarekin elkarlana eta elkarreragina bultzatzeko", dio Elhuyar Fundazioak.

Kategoria berria

Elhuyarren irudi berria, sariak bana-



Argazkian dira aurtengo edizioan sarituak izan diren egileak.

tzeko gune berria, eta bada gehiago ere. Beste berrikuntza bat, kasu honetan, CAF-Elhuyar Sarietara aurkeztu diren lanak, kategoria berri batean lehiatzeko aukera izan dute aurtengoa, "Zientzia Gizartean Sorkuntza Beka" izenekoan. "Horren bidez, zientzia eta teknologiaren eta gizartearen arteko elkarreragina sortuko duten proiektuei laguntzea dugu helburu", berri eman dute Elhuyar Fundaziotik.

Hauek dira kategoria bakoitzean, aurtengo CAF-Elhuyar Sariak irabazi dituztenak:

Zientzia gizartera sorkuntza-beka

Izenburua: "Balio berriz balio".
Egileak: Arlette Apraiz Eizagirre, Dolzeta Oararte Torrealde, Jaione Ortiz de Zarate, Mainer Amutio Izagirre, Nerea Andres Arribalzaga eta Oihane Enbeita Gardoki.

Saria: 5.000 euro aurkeztutako proiektua gauzatzeko.

Zientzia-kazetaritzaren arloko saria

Izenburua: "Ikaragarri bero zegoen zopa moduko bat zen hasieran unibertsoa".

Egilea: Gorka Zabaleta Lopetegui.

Saria: 2.000 euro eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura.

Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluaren saria

Izenburua: "Ijitoen jatorria, DNAn islatua".

Egilea: Isabel Mendizabal Ezeizabarrera.

Saria: 2.000 euro eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura.

Dibulgazio-artikulu orokorraren saria

Izenburua: "Galaxiek topo egiten dutenean".

Egilea: Miguel Querejeta Perez.

Saria: 2.000 euro eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura.

Merezimendu Saria

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak.

Sagastien inguruko ikerketaren aurkezpena

Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena izeneko ikerketa lana aurkeztuko dute, datorren asteartean, maiatzaren 7an arratsaldeko 19:30ean Potxoenean. "I. Sagastiak Loretan Ospakizuna" izeneko ekimenaren bigarren hitzordua izango da hauexa.

Maiatzak 7 asteartea

19:30 "Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" ikerketaren aurkezpena Potxoenean, Leire Jauregi Nekazaritza Ingeniarriaren eskutik.

Maiatzak 15, asteazkena

San Ixidro Eguna.

10:30 Meza Salbatore Elizan. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.

14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak Alkartasuna Kooperatiban salgai, maiatzaren 11ra arte.

18:30 Herriko erraldoi konpartsa-ekin pintxo poteoa.

Maiatzak 18, larunbata

17:00 XVI. mendeko dolare-base-ria ezagutzeko bisita gidatua Aginagako Sariaaundi baserrira.

Maiatzak 19, igandea

XXXII. Sagardo Eguna.

Maiatzak 23, osteguna

19:30 Usurbilgo sagarkien dastaketa ikastaroa Aitzagan.

Ekainak 1, larunbata

9:00 Sagastien udako inausketa ikastaro teorikoa eta praktikoa Potxoenean.

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
 Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Lodosako Martxan izan ziren Irisasi BTTko hainbat lagun



60 kilometroko martxa osatu zuten Usurbildik abiatu ziren bederatzi lagunek.

Apirilaren 21ean, Lodosako X. Martxa burutu zen Nafarroako erriberan, eta bertan izan ziren Usurbilgo Irisasi BTT taldeko bederatzi partaide. "Eguraldi ezinhobea izan zuten gure txirriindulariek probaren hasiera-hasieratik, eta

beste 400 bat partaiderekin batera ekin zioten 60 kilometroko ibilbide luzeari", adierazi digutenez. Gustura aritu ziren (argazkia ikustea besterik ez dago), eta inolako arazorik gabe bukatu zuten denek Lodosako proba.

Paleta goma txapelketan izena emateko garaia

18 urtetik gorako paleta txapelketa antolatu da datozen asteotarako. Hona hemen argibide gehiago:

EMAKUMEZKOENA:

- Izen ematea: maiatzaren 3ra arte, 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.net.
- Modalitateak: gomazko eta teniseko pilota-rekin.
- Neurketak: maiatzaren erdialdetik Santixabelak arte. Aste barruan, arratsalde.

GIZONEZKOENA:

- Izen ematea: 626 110 923.
- Modalitatea: paleta goma.
- Neurketak: igandetan, arratsaldeko 17:30etan hasita.
- Oharra: lehiaketa-sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.

Usurbil Cup txapelketa laster abiatuko da

LH osoko eta DBH 1-2 ikasturteetako ikasleek maiatzaren 3ra arteko epea dute, Usurbil Cup txapelketan izen emateko. Hona hemen, Usurbil FT-k antolaturiko ekimenari begira, kontuan hartu beharrekoak:

- **Izen ematea:** Oiardo Kiroldegian. 60 euroko ordainagiria aurkeztu behar du talde bakoitzak.
- **Taldeak:** 8-10 jokalar artekoak, mistoak izan daitezke. Jokalariak usurbildarrak, eta hiru laurdenak herriko eskoletakoak izan beharko dute.
- **Talde bakoitzeko buru:** 18 urtetik gorako arduradun bat.
- Txapelketaren hasiera: maiatzak 17.
- Kategoriak:
- **LH 1-2 minibenjaminak** (talde mistoak derri-gorrez), **LH 3-4 benjaminak**, **LH 5-6 alebina**, **DBH 1-2 infantilak**.

Areto futbol txapelketa

Apirilaren 26an abiatu zen Areto Futbol Txapelketa, lehen neurketekin. Jai bezpera izanda, asteartean jokatu zen bigarren jardunaldia. Etenaldirik gabe, hirugarrena ostiral honetarako iragarria dago, 20:00etatik aurrera frontoian.

Errifa zozketa

Miguel Zugasti herritarra izan da Usurbil Kiroel Elkarteak egiten duen errifa zozketako azken saritua. 8.292 zenbakidun errifa zuen berak. Eskubaloit taldekoak laguntzeagatik bi lagunentzako otordua irabazi du Olarrondo jate-txean. Errifa zozketa antolatzen dutenek, ohi bezala, eskerrak eman nahi dizkiete ekimenean parte hartzen duten jate-txeei, baita errifak erosten dituzten guztiei ere.

Selekzioarekin batera

Maiatzak 5, igandea

11:00-13:00 Zumarragako Kiroldegian, kade-te mutilak: Mikel Atxega eta Xabat Beloki.
10:00-12:00 Infantil mutilak: Eneko Iribar.
11:30-13:00 Kadete neskek: Amaia Arruti, Esti-txu Berasategi.

Futbol partidak, Haranen

Maiatzak 4, larunbata

9:45 Infantil neskek F-8.
11:00 Infantil mutilak F-11.
16:00 Kadete F-11.

Maiatzak 5, igandea

15:30 Jubenilak.

Eskubaloia, Oiardon

Maiatzak 4, larunbata

9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5A-La Salle Berrozpe 5A.
9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5B-La Salle Berrozpe 5B.
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6B-La Salle.
11:30 Alebin neskek:
Udarregi 6-Aitor Ikastola.
12:30 Infantil neskek:
Udarregi A Usurbil-Eibar B.
16:30 Kadete neskek:
Usurbil K.E.-Elgoibarko Sanlo.
18:00 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Pulpo.
19:30 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Ereintza.

Maiatzak 5, igandea

10:00 Infantil neskek:
Udarregi C Usurbil-Aiala A
11:30 Kadete neskek:
Gipuzkoako selekzioaren kontzentrazioa.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzea. Fatxada eta portala berritu berria. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukaldea eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukaldea eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Etxe bat alokairuan Atxegalden.

Tel. 659 921 235.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA

salmenta,

garajeak

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kobxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizein arratsaldean. Irakaskuntza diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldean, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005"

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)



Zorionak Alaia! Maiatzaren 4ean bi urte beteko dituzu. Muxu handi

bat gure poxpoliñarentzat famili guztiaren partez.



Zorionak! Musu potoloak etxekoaren partez.



Zorionak Maialen! Maiatzaren 1ean 9 urte bete dituzu. Zorionak, Saioa, Uxue eta Olatzen partez.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adinako pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, inter-

na moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko, klase partikularrak emateko. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hez-

kuntzan diplomatua. Esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

Zerbitzari bat behar dugu Xarma tabernan. 943 368 771

BESTELAKOAK

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea,

grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkartzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagariak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkartzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanpara, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-tostiralerara, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitzea	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskatel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 2-maiatzak 12

Osteguna 2 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ostirala 3 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 4 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 5 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astelehena 6 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astearte 7 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Asteazkena 8 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Osteguna 9 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Ostirala 10 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

Igandea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

MIKEL MADENA
Talde murriztuak eta
pertsonalizatuak
• Lehen eta Bigarren hezkuntza
• Batxilergoa • Selektibitateak
• Lanbide heziketa
• Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmial.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Agenda maiatza

3 ostirala

- **MunduMOB entsegua.** 19:00etan frontoian, 19:30ean agerraldia.
- **"Bypass"** pelikula Sutegin. 22:00etan. Sarre-raldez aurretik salgai Lizardin, egunean ber- tan leihatilan. 3 euro.

4 larunbata

- **Ikurrinaren igoera, agurra eta omenaldia.** 13:00ean udaletxe aurrean.
- **Pyrenaeus sarearen programa eta II. Auzo- mintegien aurkezpena.** 11:00etan Artzabalen.
- **"Gau-beranduan"** saioa Sutegin, 22:00.

5 igandea

- **Andatza Eguna.** 11:00etan hamaiketako, 12:00etan herri kirolak, 14:00etan bazkaria, norberak berea eramanda.
- **VI. Tipi-Tapa pintxo ibilbidea.** 15:00ak arte Artzabal, Aitzaga, Bordatxo, Txapeldun eta Txiribogan.

Andatzara igotzeko aitzakia aparta

gande honetan, maiatzak 5, Andatza eguna ospatuko da eta Usurbilgo zein Zizurkilgo Udalek hainbat ekitaldi prestatu dituzte, Andatza Mendizale Elkartearekin batera. Herri kirolak, jokoak, erromeria, trikitilariak eta bertsolariak aurkituko ditugu Andatzako txabolaren inguruan.

Maiatzak 5 igandea

- **11:00** Hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.
- **12:00** Herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.
- **14:00** Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.



Goiz pasa ederra antolatu dute iganderako.

- **Goizean zehar,** erromeria: trikitilari eta bertsolariak.
- **Antolatzaileak:** Usurbilgo Andatza Mendi Elkar- tea, Zizurkilgo Udala eta Usurbilgo Udala.

Arantzazura erromesaldia antolatu dute Aginagan

Maiatzaren 12an Arantzazura erromesaldia egingo dute Aginagatik. Goizeko 8:30ean abiatuko dira eta eguna Arantzazun emango dute. Autobusa 15 euro, bazkaria 20 euro. Guztira 35 euro. Nahi duenak bere gisa egin dezake bazkaria. Izen-ematea Aginagako Parrokiako lokaletan maiatzaren 6, 7 eta 8an; goizez, 10:00-12:00. Arratsez, 17:00-19:00.

Larunbat honetan, Dancehall ikastaroa gaztetxean

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da Raquel Koromak eskainiko duen ikastaroa. 2-3 orduko iraupena izango du. "Prezioa 15 eurokoa da, baina langabe, ikasle eta haurrentzat prezio bereziak ditugu", azaldu dute gaztetxetik.

Izena emateko deitu 627285904 telefono zenbakira edo bidali email bat helbide honetara: usurbilgogaztetxea@gmail.com

Datozenak

Makillaje ikastaroa

Gaztelekuak antolatu du maiatzaren 6an, 17:00-19:00 artean. DBH 2 eta DBH 3 mailako ikasleei zuzendua dago. Prezioa, euro bat. Miren Ezeiza herritarrek gidatuko du saioa. Izen ematea, Gaztelekuan.

Diaporama Sutegin

Iñaki Agirresaroberen "Kolorez kolore" diaporama ikus ahal izango dugu maiatzaren 8an asteazkena, Sutegin. 19:30ean hasiko da proiektzioa.



Argazki hau ere ikus ahal izango da.

MunduMOB dantzaren grabaketa

Iraunkortasunaren mezua du oinarri MunduMOB ekimenak. Ensaioak maiatzaren 3an eta 10ean egingo dira frontoian, arratsaldeko 19:00etan. Grabazioa, aldiz, maiatzaren 11n larunbata egingo da, 18:00etan frontoian.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

LAUKOTE

okindegia
kafeteria

Puntapax 16, behea 943 360 980

**IVAN
PEREZ**
ipfoto.es

hurbilag

Usurbilgo Merkatar

Estudio



Halbidea, Borbadem 3, Zumide
farmazia ondoan.

Usurbilgo IVAN PEREZ Argazki Estudioan egindako
haurrentzako argazki erreportaiak zozketatuko
dira Maiatzean Hurbilagoko ondoko saltokietan:

12 urte arteko haurrentzat egindako erosketetan,
zozketarako txartelak banatuko dira 10 euroko
erosketa bakoitzeko.

BIXEN ILE-APAINDEGIA // ELEXPE ILE-APAINDEGIA // INTZA ILE-APAINDEGIA
LAUROK // LIZARDI LIBURU-DENDA // LOLI LIZARRALDE ESTILISTA
LURDA MERTZERIA // NI ILE-APAINDEGIA // PAUMA // PAUSOKA // USURBIL OPTIKA

MUNDU**m**

Eman hartu nahi duzun mundua



- Maiatzak 3 eta 10ean entseguak frontoian 19:00tan
- Maiatzak 3an agerraldia 19:30tan

GRABAKETA Maiatzak 11, 18:00tan frontoian



Maiatzak 4 ORENDAIN



DONOSTIA Ekainak 8

ZERO ZABOR